

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	TATUAJE ARTISTIKOKO TEKNIKEI BURUZKO AHOLKULARITZA ETA HAIEN APLIKAZIOA	Iraupena	90
		Baldintzatua	
Kodea	UF1231		
Lanbide-arloa	Irudi pertsonala		
Lanbide-eremua	Estetika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Makillaje integrala	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Tatuajea	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Tatuaje-teknikak aplikatzeko ekipoak, instalazioak eta produktuak prestatzea	Iraupena	30

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0068\_3 TATUAJE ARTISTIKOKO TEKNIKAK APLIKATZEA ETA GAINBEGIRATZEA gaitasun-ataleko LB1, LB3, LB4 eta LB5 lanbide-burutzapenekin.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Tatuaje bidez egin daitezkeen zuzenketa eta motibo apaingarriak proposatzea, eta larruazala prestatzeko eta zaintzeko kontraindikazio eta jarraibideak identifikatzea.

EI1.1 Tatuajea aplikatzeko neurri ezohikoak hartzea eta tratamendua atzeratzea edo betiko baztertzea eskatzen duten larruazaleko alteraziorik ohikoenak identifikatzea.

EI1.2 Larruazala orbaintzeko eta birsortzeko prozesuan eragiten duten eta tatuaje-prozesua aplikatzean ezohiko neurriak hartzea,aldi baterako atzeratzea edo betiko baztertzea eska dezaketen bezeroaren osasun orokorreko egoerak identifikatzea.

EI1.3 Azaltzea tatuajearen aurretik azala prestatzeko zer zainketa egin behar dituen bezeroak eta tratamendua egin eta hurrengo 7-30 egunetan larruazala behar bezala birsortzeko zer zainketa egin behar dituen.

EI1.4 Bezeroaren dokumentazioan azaldu behar duten datu pertsonalak, teknikoak eta grafikoak, baimen idatziak jaso behar duen informazioa eta bezeroari eman behar zaion dokumentazioa aipatzea.

A2: Marrazketa-teknikak aplikatzea, zenbait tatuaje-mota egiteko erabiltzen diren baliabide teknikoekin eta pigmentuekin erlazionatuz.

EI2.1 Tatuaje-diseinuan garrantzitsuenak diren marrazketako oinarriko elementuak deskribatzea.

EI2.2 Zenbait motibo-mota marraztea, teknika hauek landuz:

- Harmonia eta kontrastea.
- Iluntzea eta argiztatzea.

EI2.3 Motiboa anatomia-gune hautatura egokitzeak zenbateko garrantzia duen azaltzea.

EI2.4 Tatuaje-mota ezagunen diseinua egitea, eta haien ezaugarriak eta haiek egiteko modua deskribatzea.

EI2.5 Modelo bati marrazketa-teknikak aplikatzeko kasu praktiko batean:

- Tatuatuko den marrazkia bezeroaren gustuen, beharren eta itxaropenen arabera hautatzea eta egokitzea.
- Marrazkiaren proba egitea, bezeroaren ezaugarri pertsonalak eta eskaerak aintzat hartuta.

A3: Kolorearen eragina eta bilakaera eta koloreak pigmentuen konposizioarekin eta larruazalaren ezaugarriekin duen erlazioa aztertzea.

EI3.1 Pigmentuen kolore-oinarrien loditasunak nolako erlazioak dituen azaltzea, haiek aplikatzeko ordena zehazteko eta tatuajeak tapatzeko teknikak (*cover up* delako teknika) aplikatzeko.

EI3.2 Ikusitako azken kolorea eta hark denboran izan duen bilakaera erlazionatzea aukeratutako pigmentuen kolore-oinarrien konposizio kimikoarekin.

EI3.3 Ezarritako pigmentuek elementu hauen eraginez kolorean izandako erreakzioak azaltzea:

- Hainbat laser-mota.
- Eguzki-erradiazioak.
- Prestakin kosmetiko edo sendagarri jakin batzuekiko elkarreragina.
- Beste kanpo-eragile batzuk.

EI3.4 Tatuajeak irauten duen urteetan kolorea mantentzeko egin beharreko zainketak deskribatzea.

EI3.5 Pigmentuak aukeratzeke kasu praktiko batean, azaltzea parametro hauek nola eragiten dioten elkarri nahi den kolorea lortzeko eta hark denboran izango duen bilakaeran:

- Larruazalaren ezaugarriak: kolorea, lodiera, irrigazioa eta sentikortasuna.
- Aukeratutako pigmentuen kolore-oinarrien konposizio kimikoa.

A4: Baliabide teknikoak lortu nahi diren efektuetara egokitzuz eta arau higieniko-sanitarioak betez aplikatzea tatuaje-teknikak.

EI4.1 Tatuaje-prozesuetarako egokienak diren garbiketa-, desinfekzio- eta esterilizazio-metodo eta teknikak aplikatzea.

BI4.2 Aholkularitzako etapan jasotako bezeroaren datuak —bezeroaren fitxan jasoak— eta tatuaje-proposamena bezeroarekin berrikustea.

EI4.3 Tolerantzia-proba egiteko jarraitu beharreko urratsak eta larruazalaren erantzuna deskribatzea.

EI4.4 Tatuajea egin baino lehen larruazala prestatzeko eragiketak azaltzea.

EI4.5 Egin beharreko nahasketak eginez prestatzea pigmentuak, kontuan izanik kolore-oinarrien konposizio kimikoak larruazalaren kolorearekin duen interakzioa eta ezarritako koloreak denboran duen bilakaera.

EI4.6 Bezeroa bera babesteko eta arriskuak prebenitzeko behar diren segurtasun- eta higiene-neurriak betez prestatzea eta kokatzea.

EI4.7 Gunea garbitzeko, deskongestionatzeko, hidratatzeko eta leuntzeko kosmetiko espezifikokoak eta anestesia gisa erabiltzeko aplikazio topikoko produktuak ematea.

EI4.8 Dermografoa potentzia eta abiadura egokiaz eta aukeratutako orratz-motarekin eta -konfigurazioarekin prestatzea.

EI4.9 Motiboa larruazalean marraztea bozetoan adierazi bezala eta zenbait teknika erabiliz —kalkatuz, transfer teknikaz, esku hutsez eta abar—.

EI4.10 Pigmentu-nahasketak larruazalean sartzea marrazkian adierazi bezala, nahi diren saturazio-maila eta kolorearen intentsitatea lortzeko eta denboran nahi den bilakaera lortzeko, parametro hauek kontuan hartuta:

- Orratz-mota.
- Dermografoaren abiadura eta potentzia.
- Norabidea, mugitzeko teknika eta presioa.
- Aukeratutako pigmentu-nahasketa.
- Koloreak aplikatzeko ordena.

BI4.11 Lortutako emaitza bezeroarekin berrikustea, kontuan izanda aldatetako egindako gunearen hantura txikiak azken emaitza aldatzen duela.

EI4.12 Bezeroari jakinaraztea tatuajea egin ondoren zer alderdi izan behar dituen kontuan eta zer produktu kosmetiko eman behar dituen, nahi ez diren erreakzioak saihesteko eta emaitzak optimizatzen.

EI4.13 Lehen aplikazioaren ondoren, tratamendua berrikustea eta ukitu gehiago eman behar zaizkion begiratzea.

EI4.14 Egindako tatuajeari buruzko datuak biltzea, segimendua behar bezala egiteko, kalitatea kontrolatzeko eta emandako zerbitzua optimizatzen.

EI4.15 Tatuajeak hainbat gunetan egiteko protokoloak diseinatzea.

EI4.16 Tatuaje-tekniketan erabiltzen diren aparatu edo produktu kosmetikoak aplikatzean istripurik gertatuz gero, lehen laguntzako zer neurri hartu behar diren azaltzea.

A5: Tatuaje-zerbitzuen kalitatea ebaluatzea eta desbideratzeak zuzentzeko neurriak proposatzea.

EI5.1 Tatuaje-zerbitzuen kalitatea ebaluatzen metodoak erabiltzea.

EI5.2 Behar izanez gero, kalitatea hobetzeko neurri zuzentzaileak proposatzea.

EI5.3 Kalitatea ziurtatzeko prozesuaren etapetan zer neurri ezarri behar diren eta nolako bilakaera duten azaltzea.

EI5.4 Ekipoen, osagarrien, pigmentuen, produktuen, instalazioen eta altzarien egoera berrikustea, osasuneko arriskuak prebenitzeko segurtasun- eta higiene-neurriak aplikatuz.

## Edukiak

### 1. Bezeroaren azterketa eta aholkularitza.

- Osasuna eta zainketak:
  - Bezeroaren ezaugarri fisikoak, pertsonalak eta psikikoak.
  - Kontraindikazioak.
- Tatuajearekin erlazionatutako larruazalaren alterazioak.
  - Tatuajea aplikatzean, orbaintzean eta birsortzean eragindako lesioak.
  - Larruazaleko arazoak. Mikroorganismoak transmititzeko mekanismoak. Sarbideak.
  - Larruazaleko lesioak.
  - Alergiak.
  - Bezeroaren egoera bereziak.
- Tatuatu aurreko eta osteko jarraibideak. Mantentzeko aholkuak.
- Eskualde anatomikoak. Tatuatu beharreko gunearen arabera gomendioak eta aholkuak.

### 2 Tatuatu beharreko guneen morfologia.

- Ile-larruaren egitura.
- Tatuatu beharreko guneetako larruazalaren berezitasunak.
- Larruazalaren funtzioak.
- Hezur- eta muskulu-egitura.
- Orbaintzea eta birsortzea tatuajearen.
- Tatuatu beharreko guneen proportzioak eta geometria.

### 3 Dokumentazio tekniko, legala eta komertziala: Bezeroari buruzko informazioa.

- Tatuajeari buruzko informazioa.
- Emaitzen segimendua eta kalitate-kontrola.

- Bezeroak erakartzeko eta bideratzeko protokoloa.
- Baimen idatzia.
- Argazki-dokumentuak.
- Datuak babesteko legea.

#### 4 Tatuajeari aplikatutako marrazketa-teknikak.

- Marrazketako oinarriko elementuak:
  - Orbanak: intonazioa eta kontrastea, iluntzea eta argiztatzea.
  - Kolorea: Kolorearen teoria, tatuajeari aplikatuta. Argi-koloreak eta pigmentu-koloreak. Koloreen sailkapena. Harmonia eta kontrastea.
  - Konposizioa: formatua, pisua eta oreka. Konposizio-motak (simetrikoa, asimetrikoa, horizontala eta bertikala).
- Tatuajeen ezaugarriak eta sailkapena: tradizionala, tribala, ekialdekoa, abstraktua, *crazy tattoo* delakoa, erretratua, biomekanikoa eta zeltikoa.
- 3Dko marrazkiak, tatuajeari aplikatuta.
  - Eremua eta egitura: bolumena bi dimentsiotara itzultzea.
  - Askotariko irudikapenak: giza irudiari buruzko sarrera.
  - Lerroak eta itzalak: ereduak konpontzea, abiapuntutzat haietako bakoitza hartuta.
- Diseinuak eta haien larruazalera transferitzea. Kalkatzeko sistemak.
- Tatuaje-joerak.

#### 5 Kolorearen teoria eta horrek tatuajearen duen aplikazioa: argi-kolorea eta pigmentu-kolorea.

- Argi-motak eta haien tatuajearen duten eragina.
- Kolorearen teoria, tatuajeari aplikatuta:
  - Argi-koloreak eta pigmentu-koloreak.
  - Koloreen sailkapena.
  - Kolorearen teoria.
- Kolore-nahasketak.
- Harmonia eta kontrastea.
- Bolumena eta sakontasuna.
- Kolorea hautatzeko tatuajearen dauden mugak.
- Maniobra edo aplikazio teknikoak eragindako kolore-aldaketak.

#### 6 Tatuaje-teknikaren parametroak.

- Orratz-motak eta orratzen konfigurazioa.
- Dermografoaren abiadura eta potentzia.
- Dermografoaren norabidea.
- Mugimendu-motak.
- Egindako presioa.
- Dermografoaren proiektzioa.
- Sarpen-angelua.
- Sarpen-sakonera.
  - Orratzaren luzera.
  - Sarpenaren luzera.
  - Pigmentua eta sarpenaren sakonera.

#### 7 Tatuajea aplikatzeko teknikak.

- Tolerantzia-proba.
- Larruazala prestatzea. Mozketa eta desinfekzioa.
- Faktore hauek konbinatuta lortzen diren aplikazio-teknikak edo marrazketak:
  - Orratz-motak eta orratzen konfigurazioa.
  - Dermografoaren abiadura eta potentzia.
  - Norabidea, mugimendu-mota eta presioa.
- Teknikak aplikatzea: lausotzea, itzalak, erliebeak, kolore-nahasketak, betetzea, tatuaje erdiiraunkorrak finkatzea, delineatzea, tatuaje iraunkorrak argitzea eta abar.
- Tatuajeak estaltzeko teknikarekin, *cover up* delako teknikarekin, egitea tatuajea.
- Tatuaje-protokolo normalizatuak.
- Lehen laguntzak tatuajearen.

#### 8 Kalitatea tatuaje-zerbitzuetan.

- Kalitatearen kontzeptua.
- Tatuaje-zerbitzuak ematean izandako desbideratzeak detektatzeko teknikak.
- Tatuaje-zerbitzuen kalitate-faktoreak.

- Tatuaje-zerbitzuen ebaluazioa eta kalitate-kontrola.
- Tatuaje-zerbitzuen kalitatea definitzen duten parametroak.
- Bezeroaren gogobetetze-maila kontrolatzea, eta tatuaje-zerbitzuetako desbideratzeak zuzentzea.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

UF1230 gainditua izan behar du: Tatuaje-teknikak aplikatzeko ekipoak, instalazioak eta produktuak prestatzea

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Makillaje integrala